

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zur-papur

AUZOLANEAN ARI DIRA zuhaitzak. Onddo txatxu batek txankro erretxinaduna eragin eta Euskal Herri atlantikoko basoetan azken mendean jaun eta jabe izan den pinu beltzaren hagintea eraistea lortu du. *Fusarium circinatum* izena du onddo alu horrek! Eta gorri, larrua bizirik gelditu ez da bada mendia! Jo eta hotzikarak dar-dar mendia...

Makina bat buruhauste izango du hemendik atzera basoari etekinik atera nahi dionak. Buruari aztarrika egin beharko dio. Aztarrika horretan maiz aritzen naizen horietakoa naiz, ez ordea basoari begira. Azken urte hauetan baina, lan kontu batzuk gora-behera, aspaldi baztertuak nituen tala batzuetatik begiratu behar izan diot basoari. Galdera xalo bati erantzuna topatze aldera... Bere sinplean seko bihurria den galdera: zer arraio egin behar dugu basoarekin etorkizunean?

Geure isuri atlantikoak da munduan proportzioan baso gehien duen lurraldeetako bat. Eutsi ez, gora tira beharko genioke, lehenaz gain. Hori da gure etorkizuna. Gaur bertan jarri dut Facebooken nola Eskoziak eta Danimarkak marka jartzekoa duten: urte gutxi barru energia kontuetan burua aski izateko haize-erroten plangintza abiatu dute. Eta guk? Independentistok?

Lorategi bat diseinatzen denean bezala egin behar da lan basoan, hau da, jartzen dena irabazi eta irabazi



izango da urtetan eta urtetan. Erronka jo, desafioari heldu eta urte askotarako bideari ekin behar zaio. Erdi Aroan gure herriak bizi izan zuen bere bigarren urrezko aroa ezinezkoa litzateke basoen kudeaketa egokirik gabe. Gaur tankerako barruti baterako atakan gaude: gure etorkizuneko energia basoak eman behar du. Garai hartan ikatza bezala, nahikoa zur-papur egiten badugu ez da hotzik izango hemen, ez eta hotzikararik ere.

Pinudiak gorri utzi dituen lur sailak okupatzen ari diren zuhaitzak auzolanean ari dira. Gurekin auzolanean, bidea erakusten digute: zein zuhaitz dago prest horretarako. Nola landu asmatu besterik ez dugu egin behar guk.



## Irakurleak galdezka

**Kaixo Jakoba. Galdera garrantzitsu bat daukat: ea menda-belarra nola galdu litekeen.**  
Faustino Urbizu (Segura).



Iepa, Faustino. Galdera sinplea baina bai sakona! Ez da erraza menda-belarra galtzea. Menda nitrogeno asko dagoen lurretan erruz ugaltzen da. Mendak lur aberatsa dela adierazten du, edo bertan abere asko ibiltzen dela, eta haien simaurra... Nitrogeno gaindosia, ordea, eta desoreka. Horren ondorioz menda eta osina, batez ere, azaltzen dira indarrean. Galtzeko sustraia atera behar dira. Eskuz ez da lan zaila, baina lana!

Ilargiero makinaz moztuta asko atzeratzen da, beti ilgoran moztu eta ahal bada egun beroenetan, egokienak maiatzetik irailera arteko ilgorak dira.

Bestela herbizidak badaude, baina...

Menda denak galdu aurretik sorta on bat egin eta etxea harekin igurtzi, usain ederra zabalduz xomorro eta intsektuak uxatuko dituzu. Gero ohepean utzi, arkakusoak urrutiratuko dizkizu. Gure amona Joxepak hala egiten zuen.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.